

5 ZEREZ ETA ZERTAZ KASUAK. Aukeratu erantzun zuzena kasu bakoitzean.

- Zerez joango zarete etxeraino, ... ala ...?
 - ☐ metroz/autobusez
 - ☐ metroan/autobusean
 - ☐ metroaz/autobusaz
- ... hitz egin dizue Marenek, literaturaz?
 - ☐ Zertaz
 - ☐ Zerez
 - ☐ Nortaz
- Etxeko telefono-zenbakia ... ikasi dut.
 - ☐ buruaz
 - ☐ buruez
 - ☐ buruz
- Aizu, ... gogoratzen al zara?
 - ☐ Anderretaz
 - ☐ Anderrez
 - ☐ Anderraz
- Non egon zara? Amak galdetu du.
 - ☐ zutaz
 - ☐ zuz
 - ☐ zuez
- Oierrek asko daki...
 - ☐ informatikaz.
 - ☐ informatikataz.
 - ☐ informatikan.



6 NOREKIN ETA ZEREZ. Aukeratu hitz zuzena esaldi bakoitzean.

- Amaiak *autoz/autoarekin* etorri da.
- Nahiak bi *oinez/oinekin* jotzen du baloia.
- Nik *irratiz/irratiarekin* jarraitzen ditut partidak.
- Maider ondo moldatzen da *ordenagailuarekin/ordenagailuaz*.
- Aitak *eskuarekin/eskuz* agurtu gintuen.

7 ESAPIDEAK. Lotu zatiak esapideak osatzeko. Gero, osatu beheko esaldiak esapide egokiarekin.

- | | |
|--------------|------------|
| aho batez ■ | ■ jarraitu |
| begiz ■ | ■ aritu |
| orpoz orpo ■ | ■ erabaki |
| eskuz esku ■ | ■ jo |

- Adostasunez erabakia hartu:
- Biok biotara, beste laguntzarik gabe:
- Hurbiletik segika joan:
- Arreta piztu, aukeratu:

8 BIRDEKLINABIDEA. Berridatzi esaldiak -ko marka erabiliz, adibidean bezala.

- Gurasoekin **dudan** harremana oso ona da.
 - Gurasoekiko harremana oso ona da.
- Etxeko hesiak **burdinaz** egindakoak dira.
- Zuentzat **ekarri** ditugun liburuak hor daude.
- Anerekin **ditudan** elkarrizketak luzeak dira.

Deklinabidea

- **NORENTZAT** deklinabide-kasuak aditzaren edo ekintzaren hartzailea adierazten du. Marka hauek ditu: **-(r)entzat** (mugagabea), **-arentzat** (singularra) eta **-entzat** (plurala).
 - Osabak opariak **ekarri** ditu **amarentzat, ilobentzat eta zenbait seniderentzat**.
- **NOREKIN** deklinabide-kasuak kidetasuna, tresna edo bitartekoa adierazten du. Marka hauek ditu: **-(r)ekin** (mugagabea), **-arekin** (singularra) eta **-ekin** (plurala).
 - Andoni jolasean **dabil** bere **lagunekin**.
- **ZEREZ** eta **ZERTAZ** deklinabide-kasuak marka berberak dituzte: **-(e)z** (mugagabea), **-az** (singularra) eta **-ez** (plurala). **ZEREZ** kasuak tresna, materia edo modua adierazten du. **ZERTAZ** kasuak, berriz, gaita.
 - **Ingurumenaz** arduratuta nago; horregatik, **bizikletaz** joaten naiz eskolara.